

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	PERIFERIKO MIKROINFORMATIKOEN INSTALAZIOA ETA KONFIGURAZIOA	Iraupena	60
		Baldintzatua	
Kodea	UF0862		
Lanbide-arloa	INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK		
Lanbide-eremua	Sistemak eta telematika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Sistema mikroinformatikoen muntaketa eta konponketa	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Ekipo mikroinformatikoen muntaketa.	Iraupena	150
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Osagaien muntaketa eta egiaztapena	Iraupena	90

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC953\_2 EKIPO MIKROINFORMATIKOAK MUNTATZEA gaitasun-ataleko LB3 lanbide-burutzapenarekin.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

#### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Periferikoak ekipo mikroinformatikoen instalatzea behar bezala instalatzeko, emandako zehaztapenen arabera.

EI1.1 Gailu periferikoen motak sailkatzea, dagozkien ezaugarri tekniko eta funtzionalak, konfigurazio-parametroak eta erabilera-gomendioak identifikatuta, eta dagozkien zehaztapen teknikoak kontuan izanda.

EI1.2 Eskakizunak identifikatzea instalazio-prozedurak egitean elikadura elektriko baldintzei, kableei, konexio fisikoei eta ingurumen-zirkunstantziei dagokienez, fabrikatzaileak emandako dokumentazio teknikoan adierazitakoaren arabera.

EI1.3 Periferikoaren funtzionalitateak ustiatzeko beharrezkoak diren gailuen kontrolagailuak (driverrak) eta software-utilitateak instalatzeko prozedurak deskribatzea, gailuaren beraren zehaztapen teknikoak kontuan izanda.

EI1.4 Periferikoarekin egingo diren proba funtzional eta operatiboak sailkatzea funtzionatuko duela ziurtatzeko, zehaztapen teknikoaren arabera

EI1.5 Zenbait periferiko dauzkagun kasu praktikoetan, horiek instalatzeko eta sistema mikroinformatikora konektatzeko, gailu bakoitzaren zehaztapen teknikoak kontuan izanda:

- Instalatzeko elementuak dauzkagula egiaztatzea kableei, konektoreei eta elementu fisikoei dagokienez zein biltegitatze-gailuei dagokienez (disketeak, diskoak edo bestelako euskarriak), gailuen kontrolagailuekin (driverrak) eta instalatzeko beharrezkoak izango diren software utilitateekin.
- Sistema mikroinformatikoan gailuarekin konexioa egiteko baliabideak dauzkagula egiaztatzea, ataka, konektore edo badieei dagokienez, zein elikadura-larakoak baliatzeko aukerari eta bestelako ingurumen-eskakizunei dagokienez.
- Gailua instalatzea araudiak zehaztutako segurtasun- eta babes-baliabideak aplikatuta eta kasu bakoitzerako erreminta espezifikoak erabilia.
- Gailuaren kontrolagailua (driverra) konfiguratzeko sistema eragilean.
- Proba funtzional eta operatiboko prozedurak instalatutako gailuari aplikatzea.
- Egindako prozesuak eta haien emaitzak dokumentatzea.

EI1.6 Dokumentazio teknikoaren interpretatzea, sektorean gehien erabiltzen den atzerriko hizkuntzan argitaratuta egonda ere, eta lagungarri moduan erabiltzea.

#### Edukiak

##### 1. Gailu periferikoen deskribapena.

- o Gailu periferikoen motak.
  - Inprimagailuak.
  - Eskanerra.
  - Irakurgailu optikoak.
  - Bozgorailuak, mikrofonoak eta gailu multimedialak.
  - Backup-zinten irakurgailua.
  - Beste batzuk.
- o Ezaugarri tekniko eta funtzionalak.
- o Konfigurazio-parametroak.
- o Erabilera-gomendioak.
- o Espezifikazio teknikoak.

##### 2. Periferikoen instalazioa eta proba.

- Periferikoak muntatzeko prozedurak.
- Instalazio-eskakizunen identifikazioa.
  - Fabrikatzailearen dokumentazioa.
  - Elikadura elektrikoa.
  - Kableak.
  - Konexio fisikoak.
  - Inguru-kondizioak.
- Periferikoen instalazioa eta konfigurazioa
- Txartelen instalazioa eta konfigurazioa
- Kontrolagailuen eta software-utilitateen instalazioa.
- Proba funtzional eta operatiboen burutzapena.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-erlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0861: Osagaien muntaketa eta egiaztapena.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Sistema mikroinformatikoen muntaketa eta konponketa